

HEGOALDERA BEGIRA



Hegoaldera begira

EDUCO

Garapenerako lankidetzako nazioarteko GKE bat gara, eta haurren alde eta haurren eskubideak defendatzeko egiten dugu lan, bereziki kalitatezko hezkuntza izateko eskubidearen alde. Neska-mutilekin eta haien inguruarekin egiten dugu lan, haien eskubideak eta ongizatea bermatzen dituzten gizarte zuzen eta bidezkoagoak sustatzeko. Pertsona guztiei bizitza duin batez osoki gozatzeko aukera ematen dien mundu bat eraiki nahi dugu.

Gure lehentasuna umek eta nerabeak dira, zehazki, egoerarik zaugarri eta baztertuenean daudenak, eta arreta berezia eskaintzen diegu neskei.

Gure lana **haurren eskubideak** bete daitezela bultzatzera bideratuta dago, beti ere eskubideak arautzen dituen nazioarteko hitzarmenaren esparruan (Umeen Eskubideei buruzko Konbentzioa, 1989), baita haurren ahal besteko ongizatea bilatzera ere, ezin hobea baita gizarte bidezkoagoak lortzeko eman diren aurrerapausoak ebaluatzeko.

Eskubideen ikuspegi honek gure ekintza guztietan hitzarmenaren oinarritzko printzipioak aplikatu behar direla esan nahi du, hau da: diskriminaziorik eza, haurren interesaren lehentasuna, bizirauteko eta garapenerako eskubidea eta umek eta nerabeek beren iritzia adierazteko eta berekin lotutako gai guztietan kontuan hartuak izateko duten eskubidea.

Hezkuntza, berez eskubide bat izateaz gain, gainerako eskubideak eta askatasunak lortzeko nahitaezko tresna da. Horregatik ziur gaude eztaba daezina, eskuragarria, irisgarria, onargarria eta moldagarria izan behar duela. Gure ustez horrela bakarrik delako pertsonen eta haien komunitateen bizitza aldatzeko gai, bidezkoagoak eta berdintasunezkoagoak diren gizarteak erakitzen lagunduz, alegia.

Gure erakusketek munduko arazoak ezagutzera ematen laguntzen dute, gure inguruan kontzientzia kritikoak esnaraziz. Horregatik, errespetuan eta giza duintasunaren sustapenean eta gizarte-kontzientzia kritikoan oinarrituta dagoen eta gizartearen bidegabekeriak aldatzeko dinamikak sortzeko gaitasuna duen **biztanleria global aktiboaren** kontzeptua bultzatu eta indartzeko egiten dugu lan. Horrek **kontzientzia eta jarrera kritikoak, tolerantetia eta solidarioak garatzen laguntzea** esan nahi du, pertsonen eta gizartearen arteko lankidetzak sustatzeko, justizia soziala bultzatzera bideratuta. Helburu horrekin, sensibilizazio-ekintzak gauzatzen ditugu udaletan, liburutegietan, kultur etxeetan, unibertsitateetan, etab.



Hegoaldera begira

EDUCO 2015 ERAKUSKETAK

Hegoaldeko umeen eta gizon-emakumeen begiraden 20 argazkiko erakusketa honen bitartez, egunero pobrezari aurre egin behar dioten pertsona hauen bizitza ezagutzera ematen dugu.

Benetako istorio pertsonal hauei esker, modu gizatiarragoan hurbil gaitzke egoerarik ahulenean dauden pertsonen eguneroko bizitzara.

EDUCO LANKIDETZAN

2.400 eskolatan baino gehiagotan egiten dugu lan eta tokiko 130 proiektu baino gehiago bultzatzen ditugu, eta horrela, ia milioi bat pertsonari laguntzen diegu Amerikako, Afrikako, Europako eta Asiako 17 herrialdetan.

Arlo hauetan egiten dugu lan:

Hezkuntza

Neska eta mutil guztiak eskolara joan daitezela nahi dugu, eta gutxienez lehen hezkuntza buka dezatela, kalitatezko hezkuntza jaso dezatela eta eskolan material eta inguru egokiak izan ditzatela garatzeko.

Osasuna eta elikadura

Umeak osasuntsuago egon daitezela nahi dugu, eta hori gaixotasunen prebentzioari eta tratamenduari esker lortzen dugu, baita haien elikadura hobetuz eta beren familiei lagunduz ere, beren diru-sarrerak igo ditzaten eta janari egokia lor dezaten.

Larrialdiak

Lan egiten dugun eremuren batean hondamendi natural bat gertatzen bada, gure erakundea prest dago larrialdi posibleari erantzuteko. Era berean, eremu batzuetan, hondamendi naturaletarako prebentzio-lana egiten dugu.

Garapen Ekonomikoa

Umeek garapen ezin hobea izan dezatela nahi dugu, eta hori posible izan dadin, beharrezkoa da familiek independentzia ekonomikoa izan dezatela. Horregatik, familiek jardueren edo lanaren bidez lortzen dituzten diru-sarrerak umeen hazkuntza ona eta garapen osoa bermatzeko nahikoa izan daitezen egiten dugu lan.

Haurren babesa

Haurrak beren eskubideen orotariko urraketen aurrean babesteko erantzukizuna dugu. Inguru osasuntsuaz goza dezaten egiten dugu lan, eta ez dezaten inolako indarkeriarik, gehiegikeriarik, ustiapenik, arduragabekeriarik edo diskriminaziorik jasan.

Gizartearen Parte-hartzea

Gure lanaren xede diren ume guztiei eman nahi diegu haurrekin eta haurrentzat pentsatu eta planteatu ditugun hobekuntza-proposamenen berri. Haien ahotsa eta iritziak kontuan hartuak izan daitezela nahi dugu.

Hegoaldera begira

FITXA TEKNIKOA

- 80 x 50 cm-ko 20 argazki barne hartzen ditu.
- Kokapena: 2 esekitoki argazki bakoitzaren atzean.
- Educok bere materialak beti eskaintzen ditu dohainik, eta erakunde hartzaileei eskatzen die ahal dela erakusketaren garrarioaren edo bidalketaren gastuak beren gain hartzeko.

Jarduera osagarriak:

Hitzaldia

Argazki-erakusketaren esparruan, 60 minutu inguruko jarduera bat antolatzeko aukera ematen dugu. Jarduera honek Educoren lanaren xede den herrialde baten inguruko sentsibilizazio-hitzaldi bat barne hartzen du.

